



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 10a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
 - IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldikokontuorokorra (6. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (6. or.).
 - IV.3. Udalaren 2013ko egoeraekonomiko-finantzarioa (6. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (8. or.).
- V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

V.1. 2013ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (9. or.).

V.2. 2013ko aurrekontu-emaizta bateratua (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n (10. or.).

V.4. 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (11. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2013an (12. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (13. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (15. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).

VI.5. Inbertsioak (16. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).

VI.7. Hirigintza (18. or.).

VI.8. Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L. (18. or.).

VI.9. Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. (19. or.).

VI.10. Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. (20. or.).

Eranskina. 2013ko kontu orokorraren oroitidazkia


(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Burlatako Udalaren eta haren menpeko ente 2013ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Burlatako udalerrak 2,12 km²-ko azalera du, eta 2013ko urtarrilaren 1ean, 18.148 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Sektore publiko administratiboa, Udalak berak eta haren erakunde autonomoek (Kirol eta Kultur patronatuak) osatzen dutena. Honakoak dira haren 2013ko datu nagusiak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	14.338.568	13.601.417	144
Kirol Patronatua	2.034.680	2.079.440	34
Kultur Patronatua	833.449	829.508	6
Bateratzearen doitzeak	- 1.302.479	- 1.302.479	
Guztira	15.904.218	15.207.886	184

Udalak 2013an bere erakunde autonomoei egindako ekarpena, guztira, honakoa izan da: 601.887 euro Kirol Patronatuari eta 700.592 euro Kultura Patronatuari.

- Enpresen sektore publikoa 2005ean, Udalak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L. sortu zuen. Kapital guztia Udalarena da. Sozietate horrek ehuneko 51ko parte-hartzea du bitariko sozietate hauetan: 2008an sortutako Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. eta 2010ean sortutako Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. Bi sozietate hauetan bazkide pribatua bera da. 2013an datu ekonomiko hauek dituzte (emaitzen kontua):

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak, 2013-12-31n
Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L.	750.819	462.772	288.047	1
Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L.	14.001	119.465	(105.464)	-
Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L.	2.262.952	2.176.137	86.815	-

Sozietate hauek udal-bulegoetan dute beren egoitza soziala.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi zerbitzuak, bai eta ibai-parkearen kudeaketa ere.

b) 2010eko irailean, Burlata eta Atarrabiako Udalek Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoko estatutuei hasierako onarpena eman zieten.

Zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2013an
Eskualdeko garraio publikoa	294.550
Ibai parkea	49.253
Musika Partzuergoa	268.688

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Merkataritza sozietate osoa	Mankom. Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Erren-tamen-dua	Merkataritza-sozietate mistoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Oinarrizko gizarte zerbitzua	X					
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	X					
0-3 urteko haur-eskolak				X		
Hirigintza	X	X				X
Lorategiak	X					
Garraio publikoa			X			
Uraren ziklo integrala			X			
Hiri-hondakinen kudeaketa			X			
Liburutegia-ludoteka	X					
Musika eskola			X			
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak	X					
Kirolak	X					
Kirol jardueren kudeaketa	X			X		
Udal-kiroldegiak	X				X	
Gizarte enplegu babestua	X					
Diru-bilketa exekutiboa				X		
Familien arretarako zentroa	X					
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa				X		

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Alkatetzaren 2012ko abenduaren 31ko 993/2012 Dekretuaren bitartez, 2011ko udal aurrekontua 2013ko ekitaldira luzatzea erabaki zen. Hain zuzen, 2011ko aurrekontu hori izan da 2012an indarra izan duena. 2014ko uztailaren 24ko Osoko Bilkurak 2013ko ekitaldiko kontu orokorra onetsi zuen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hiru-garrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2013ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arloz; sozietate publikoei buruzko iruzkin batzuk ere biltzen ditu.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2013ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Burlatako Udaleko eta bere erakunde autonomoetako eta enpresetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzagatik.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Burlatako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Burlatako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Udalak 2013an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.
- Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2013ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteei ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Burlatako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Udala akzio guztien jabe den udal sozietatearen urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: Udalaren eta haren menpeko erakundearen egoera-orri bateratuak, oroitidazkia, zorraren egoera-orria, kontu-hartzailetzaren txostena eta sozietate mistoen kontuak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak.

Sozietate publikoen 2013ko urteko kontuei dagokienez, lana, funtsean, honakoa izan da: sozietate hauen eragiketa nagusiek, sektore publikoko entitateak diren aldetik, aplikatzekoak zaizkien lege-printzipioak –batez ere kontratazio administratiboari buruzkoak eta Udalak kontratazio horiekiko aplikatu behar dituen kontrol mekanismoei buruzkoak– betetzen dituzten begiratzea.

Udalaren Hirigintza Sozietatearen eta haren partaidetza duten sozietate mistoen (Ripaberri Desarrollo Urbano S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano S.L.) 2012ko urteko kontuek badute kanpoko auditoreek egindako finantzen auditoria-txosten bat, eta haien iritzi profesionala salbuespenik gabekoa izan da lehenengo bi sozietateen kasuan; "Erripagaña Desarrollo Urbano" sozietatean, berriz, salbuespen gisa aipatzen da sozietateak bere produktu amaituen ehuneko 15eko andeatzea aplikatu duela izakinen amaierako kopuruan. Ezin izan da egiaztatu ez amaierako balorazioa, ez aplikatutako andeatzea.

Kontuen Ganberak aurreikusita dauka 2015erako lanerako planean txosten bat sartzea Burlatako Udalaren sozietate publikoen kudeaketari buruz.

IV. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Burlatako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTUO ROKORRA

- Burlatako Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik egin gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu finkatuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2013ko abenduaren 31n, 92,8 milioi eurokoa zen.

- Udalak aurrekontu-kontabilitatean permuta-eragiketa bat erregistratu du, 1,28 milioi euro egiten duena. Eragiketa hori kontabilitate orokorrean baino ez da erregistratu behar.

Arestian aipatutako salbuespenen ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2013ko ekitaldian Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN 2013ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 15,8 milioi euroko gastuak eta 16,7 milioi euroko diru-sarrerak dauzka; zenbateko horri 2,8 milioi euro gehitu zaizkio aurrekontu-aldaketen bitartez, eta horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 18,6 milioi eurokoak dira gastuetarako eta 19,5 milioi eurokoak diru-sarreretarako; egin diren aldaketek inbertsio errealean kapituluan dute batez ere eragina.

Aitortutako betebeharrak 15,9 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 86ko betetze-maila izan dute.

Aitortutako eskubideek 15,2 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 78koa izan da.

Gastuen izaerari begiratzuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 87 eta ehuneko 10 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 87 dira; diru-sarreraren ehuneko 42, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 41 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 1 kapital-transferentzietatik), eta ehuneko 6 inbertsio errealean besterentzetik heldu dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantza iturria	Ehunekoa
Langileak	50	Tributu bidezko diru-sarrerak	46
Bestelako gastu arruntak	38	Transferentziak	42
Inbertsioak	10	Ondare bidezko diru-sarrerak eta inbertsioen besterentzea	12
Finantza-zama	2	Zorduntzea	-
Guztira	100	Guztira	100

Ondoren, datu ekonomiko nagusien eta aurreko urtekoen arteko alderaketa aurkezten dugu, aurkeztutako kontuen arabera; zenbait kasutan, arestian aipatutako permuta-operazioaren bidez zuzendutako datuak ere ageri dira.

	2012	2013	Aldea (%) 2013/2012	2013 Zuzendua	Aldearen ehunekoa, zuzendua/2012
Aitortutako betebeharrak, guztira	14.887.953	15.904.219	7	14.620.072	-2
Likidatutako eskubideak, guztira	16.013.301	15.213.879	-5	13.929.731	-13
Gastuen betetzea (%)	83	86	-		
diru-sarreraren betetzea, %	81	78	-		
Ordainketak (%)	90	92	-		
Kobratutakoa, %	87	91	-		
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	13.780.367	13.873.875	0,7	13.873.875	1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	13.732.608	13.848.306	0,9	13.848.306	1
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	547.957	1.650.691	201	366.543	-33
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	559.629	379.653	-32	379.653	-32
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.850.177	14.116.028	-5	13.795.880	-7
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	7.605.008	7.015.817	-8	7.015.817	-8
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	1.153.186	1.086.216	-6	122.216	-89
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	47,48	41,84	-		
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	1.684.977	-310.687	-118		
Aurrekontu-emaizta doitua	1.060.298	-130.711	-112		
Aurrezki gordina	1.117.569	267.722	-76	-52.427	-105
Finantza-zama (3.etik 9.era)	585.589	396.382	-32	396.382	-32
Aurrezki garbia	531.980	-128.659	-124	-448.809	-184
Zorpetze maila (%)	3,94	2,81	-	2,87	
Zorpetze muga (%)	7,53	1,90	-	-0,38	
Zorpetze-ahalmena (%)	3,58	-0,91	-	-3,25	
Diruzaintza-gerakina, guztira	7.329.853	6.193.158	-15		
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-2.748.743	-3.411.353	24		
Zor bizia	1.322.326	951.514	-28		
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	8,90	6,80	-	6,90	
Zor bizia biztanleko	73	52	-		
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	1,18	3,55	-		

Zuzendutako datuak kontuan hartuta, aurreko urtearekin alderaketa eginez, Udalak ehuneko 2 gutxiago gastatu du, nahiz eta gastu arruntek ehuneko bat gora egin duten. Bestalde, diru-sarrerak ehuneko 13 egin dute behera; tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 8 txikiagoak dira, eta kapitaleko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 89 txikiagoak.

Gastu arruntek aurreko urtekoen eutsi diote; diru-sarrera arruntek, berriz, ehuneko 7 egin dute behera. Diru-sarrera arrunten gutxitze horren azalpena da EIOZetik heldu den diru-sarrerak dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa negatiboa da, 311.000 eurokoa, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak izan. 2012rekin alderatuta, saldo horrek 2 milioi eurotan egin du behera.

Aurrekontu-emaizta doitua 131.000 milioi euro negatibo izatera iritsi da; aurreko urtean, berriz, milioi batekoa izan zen.

2013an, aurrezki gordina negatiboa da, -52.000 milioi eurokoa; aurrezki garbia, berriz, negatiboa da, -449.000 eurokoa; 2012an, aurrezki gordina 1,1 milioi eurokoa izan zen eta aurrezki garbia, berriz, 532.000 milioi eurokoa.

Zorpetze-mailak muga gainditzen du; horrenbestez, ez du zor berririk hartzeko gaitasun ekonomikorik.

Diruzaintza-gerakina 6,1 milioi eurokoa da guztira, eta 2012tik ehuneko 15 murriztu da. Hala eta guztiz ere, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa -3,4 milioi eurokoa- izaten jarraitzen du. Gerakin horrek 0,6 milioi egin du gora 2012ko kopuruetatik. Kontu-hartzaileak oroitidazkian dioen bezala, Udalak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotako neurriak hartu behar ditu egoera orekatzeko. Nabarmendu beharra dago Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L.k 15,7 milioi euroko funts berekiak dituela, eta 4,6 milioi euroko zirkulatzaila.

Epe luzeko zorra 0,95 milioi eurora jaitsi da, eta ehuneko 28 txikiagoa da 2012koa baino; zor hori - biztanle bakoitzeko 52 eurokoa dena, guztira- entitatearen diru-sarrera arrunten guztizkoaren ehu-

neko 10 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Ikuspegi finantzariotik, 2013an Burlatako Udalak jarraitzen du zenbait ziurgabetasun agertzen baliabide arrunt berriak sortzeko duen ahalmenari buruz, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa dauka, eta aurrezki garbia negatiboa bilakatu zaio.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
I.-VII. bitarteko kapituluetakoko gastuak, guztira	14.240.418
I.-VII. bitarteko kapituluetakoko diru-sarrerak, guztira	13.918.096
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-322.322
Finantzaketa-beharrak	-322.322

Burlatako Udalak ez ditu bete aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak, ez eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua handiagoa baita ezarritako muga baino (2012koa gehi ehuneko 1,7); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrek bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

a) Honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Plantilla organikoa Udalaren benetako langile-premietara egokitzea.*
- *Udalarentzako diru-sarrerak ekar ditzaketen jardueren (lizentziak, tasak...) gaineko kontrol- eta ikuskatze-prozedurak ezartzea.*
- *Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra onestea.*
- *Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. sozietateei buruzko datuak kontu orokorrean jasotzea eranskin gisa.*
- *Burlatako Udalaren kontu orokorra dagokion datan onestea.*
- *Udal-ondasunak (jabari publikokoak, ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*
- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta erakunde horien autonomia-maila eta Udalaren kontrola islatzea.*

b) Indarrean jarraitzen dute txostenaren ataletan azaltzen diren gomendioek.

V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2013ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

V.1. 2013ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	8.482.095	74.654	8.556.749	7.925.694	92,70	7.796.645	129.049	1,70
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	4.920.683	380.131	5.300.814	4.589.822	86,60	3.841.238	748.584	16,30
3. Finantza-gastuak	155.505	52.411	207.916	25.569	12,30	25.569	-	-
4. Transferentzia arruntak	1.363.151	71.418	1.434.569	1.332.791	92,90	1.027.197	305.594	23,00
6. Inbertsio errealak	-	2.214.487	2.214.487	1.650.691	74,60	1.616.376	34.315	2,10
8. Finantza-aktiboak	-	-	-	8.840	-	8.840	-	-
9. Finantza-pasiboak	873.372	-	873.372	370.813	42,50	339.059	31.754	8,60
Guztira	15.794.806	2.793.101	18.587.907	15.904.220	85,60	14.654.924	1.249.296	7,90

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	% Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)	
1. Zuzeneko zergak	3.737.400	-	3.737.400	3.938.636	105,40	3.486.972	451.664	11,50
2. Zeharkako zergak	1.400.000	-	1.400.000	389.416	27,90	239.418	149.998	38,60
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.864.128	-	2.864.128	2.687.765	93,90	2.493.524	194.241	7,30
4. Transferentzia arruntak	6.623.731	347.832	6.971.563	6.243.496	89,60	5.910.277	333.219	5,40
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	296.176	216.782	512.958	856.715	167,10	763.868	92.847	10,90
6. Inbertsio errealen besterentzea	1.192.798	964.000	2.156.798	964.000	44,70	964.000	-	-
7. Kapital-transferentziak	600.000	544.036	1.144.036	122.216	10,70	32.008	90.208	73,90
8. Finantza-aktiboak	40.000	720.451	760.451	11.635	1,60	11.635	-	-
Guztira	16.754.233	2.793.101	19.547.334	15.213.879	77,90	13.901.702	1.312.177	8,70

V.2. 2013ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2012	2013
+ Aitortutako eskubideak	16.013.401	15.213.879
- Aitortutako betebeharrak	14.887.953	15.904.219
= Aurrekontu-emaiza	1.125.448	(690.340)
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-713.410	14.974
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	76.901	137.803
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	571.359	406.851
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak		
= Aurrekontu-emaiza doitu	1.060.298	(130.712)

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2013ko ABENDUAREN31n

Kontzeptua	2012	2013
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	5.729.413	5.036.773
(+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.025.440	1.312.177
(+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.517.891	1.956.070
(+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	3.348.432	3.319.636
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-1.162.350	-1.551.110
(-) <i>Ordaintzeko dauden betebeharrak</i>	2.047.627	1.740.326
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.552.282	1.249.295
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	47.103	43.426
(+) Diru-sarreraren itzulketa	-	-
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	-1.300	(29.492)
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	449.542	477.097
(+) Diruzaintzako funts likidoak	3.565.859	2.758.909
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	82.209	137.803
= Diruzaintza-gerakina, guztira	7.329.854	6.193.159
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	67.235	-
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	10.011.362	9.604.511
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-2.748.743	-3.411.352

V.4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

(Udala gehi erakunde autonomoak gehi udal sozietatea)

Jardunean

Deskribapena	2013	2012
A Ibilgetua	103.950.129	102.718.428
1 Ibilgetu materiala	83.378.137	82.216.828
2 Ibilgetu ez-materiala	228.365	225.884
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	17.823.732	17.765.352
5 Herri-ondasunak	26.794	26.794
6 Finantza-ibilgetua	2.493.101	2.483.569
C Zirkulatzaila	14.069.511	15.023.514
9 Zordunak	7.725.217	8.022.025
10 Finantza-kontuak	6.344.294	7.001.489
Aktiboa, guztira	118.019.640	117.741.942

Pasiboa

Deskribapena	2013	2012
A Funts berekiak	114.941.946	114.295.181
1 Ondarea eta erreserbak	88.724.863	84.893.419
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	937.987	4.162.248
3 Kapitaleko diru-laguntzak	25.279.095	25.239.514
C Epe luzeko hartzekodunak	951.513	1.322.326
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	-	1.322.326
D Epe laburreko hartzekodunak	2.126.181	2.124.435
5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.809.368	2.124.435
Aurreratutako diru-sarrerak	316.813	-
Pasiboa, guztira	118.019.640	116.232.483

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2013an

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	2.271.671	2.517.912
61 Langile-gastuak	7.927.440	7.957.744	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	847.677	735.908
62 Finantza-gastuak	25.569	47.759	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.004.986	3.692.863
63 Tributuak	4.983	7.429	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	849.368	856.815
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	4.583.092	4.442.938			
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	7.545.974	7.874.455
67 Transferentzia arruntak	2.635.269	2.596.975	77 Kapitalaren gaineko zergak	473.698	372.121
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	108.320	102.665
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak		
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	1.099.894	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	74.659	-
Guztira	15.176.353	16.152.739	Guztira	15.176.353	16.152.739

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	74.659	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	1.099.894
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	724.559	151.580
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	-	55.560	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	649.900	1.195.914	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		
Guztira	724.559	8.686.720	Guztira	724.559	8.686.720

- Udalaren eta patronatuen emaitza 649.900 euro
- Udalaren Hirigintza Sozietatearen emaitza 288.047 euro
- 2012ko emaitza bateratua, guztira 937.947 euro

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Alkatezaren 2012ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez 2013rako luzatu zen aurreko ekitaldiko aurrekontua, 2011ko irailaren 8ko osoko bilkuran onetsi zena.
- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago. 2009an zehar, Udalaren jabetzakoak ziren lur-eremuak erregistratu ziren, katastroan ageri diren datuen arabera; Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 27an, eguneratze hori onetsi zuen, 2009ko abenduaren 31tik aurrerako eraginekin -33,5 milioi euro egiten du-; ordutik ez da horri buruzko inongo mugimendurik izan.
- Erakunde autonomoak beren estatutuaz daude araututa; estatutu horiek, ordea, eguneratzeko premia handia dute. Eguneratze horretan erakunde horien benetako autonomia-maila eta Udalak beren jardueraren inguruan dituen kontrol-mekanismoak zehaztu behar dira, besteak beste.
- Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen dituela hornitzaileei ordaintzeko epeak, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legean eta Merkataritza-eragiketetan Berankortasuna Eragozteko Neurriak ezarri zituen 15/2010 Legean ezarritakoak.
- Udalak 2013ko abenduaren 31n 952.000 euroko epe luzeko zorra dauka. Zor horren amortizazio-egutegia honakoa da 2013ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2014	355.525	37,40	37,40
2015	286.090	30,10	67,50
2016-2020	309.900	32,50	100
Guztira	951.515	100	

Hona gure gomendioak:

- *Urteko aurrekontua indarrean dauden legeetan ezarritako epeetan onetsi behar da, Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako tresna gisa erabili ahal izan dadin.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea.*
- *Udal-ondasunak (jabari publikoak, ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*
- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta erakunde horien autonomia-maila eta Udalaren kontrola islatzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 7,9 milioi eurokoa da; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 50 eta gastu arrunten ehuneko 57.

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ekitaldi horretan izandako gastuaren ildo berean egon da. Hona hemen aurreko ekitaldiarekiko konparazioa:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2012	2013	
Goi-karguak	282.427	261.148	-7,50
Funtzionarioak	2.344.971	2.670.306	13,90
Lan-kontratudun finkoak	478.723	613.630	28,20
Aldi baterako lan-kontratudunak	2.184.253	1.801.269	-17,50
Gizarte-zamak	2.661.607	2.579.341	-3,10
1. kapitulua, guztira	7.951.981	7.925.694	-0,30

Luzatutako aurrekontuarekin batera, indarrean jarraitzen du Osoko Bilkurak 2011n onetsi zuen plantilla organikoak. Bertan 163 lanpostu daude jasota –horietatik 61 lanpostu bete gabe daude–; horietatik 10 bete gabe daude.

Langile horiek honako erakunde hauetakoa da:

	Udala	Kirolak	Kultura	Guztira
Izendapen librea	2	0	0	23
Funtzionarioak	58	20	4	82
Lan kontratadun finkoak	22	2	1	25
Aldi baterakoak	39	15	0	54
Guztira	121	37	5	163

2013ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 188 pertsonak egiten zuten lan:

Langile mota	Guztira	A	B	C	D	E	Aldi baterakoak	Bete gabeko lanpostu hutsak
Funtzionarioen montepioak	16	1	0	14	1	0	0	
Funtzionarioa Gizarte Segurantza	120	2	10	39	16	0	43	10
Lan-kontratupeko langile fin-koak/mugagabeak	25	0	3	6	10	0	6	0
Izendapen librea	2	0	0	0	0	0	2	0
Honaino, guztira	163	3	13	59	27	0	51	10
Aldi baterako lan-kontratudunak (*)	34						34	

* Aldi baterako lan-kontratudunak – Laneratzeko eta enplegua sustatzeko programetako langileak eta kirol arloko aldi baterako kontratuetako langileak dira.

Udaleko langileak arlo hauei atxikita daude:

Arloak	Plantilla	A	B	C	D	E	Behin-behinekoak
Zerbitzu orokorrak	10	1	0	7	2	0	0
Zerbitzu Ekonomikoak	8	1	2	4	0	0	1
Giza baliabideak	2	0	1	0	0	0	1
Hirigintza	7	1	2	1	0	0	2
Hiriko mantentze-obrak	10	0	0	0	6	0	2
Elektrizitateko mantentze-obrak	3	0	0	1	1	0	1
Lorategietako zerbitzuko obrak	7	0	0	1	4	0	2
Kale-garbiketako obrak	11	0	0	0	1	0	10
Ikastetxeetako obrak	12	0	0	0	1	0	11
Lokalen garbiketako obrak	1	0	0	0	1	0	0
Gizarte zerbitzuak	18	0	7	4	1	0	5
Euskara	1	0	0	0	0	0	0
Hezkuntza eta Gazteria	5	0	0	2	0	0	3
Berdintasuna	1	0	1	0	0	0	0
Udaltzaingoa	40	0	1	31	0	0	4
Kultur Patronatua	5	1	0	2	2	0	0
Kirol Patronatua	22	0	1	5	7	0	9
Plantilla, guztira	164	4	15	58	26	0	51

Nabarmentzekoa da Udalaren plantillan ugari direla aldi baterako kontratudunak.

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala konta-

bilizatuta daudela. Egiaztatu da, era berean, 2013ko ekitaldian nabarmentzeko moduko soldata-igoerarik ez dela izan.

2013an amaitu ziren aldi baterako lanpostuak betetzeko deialdiak aztertuta, ondorioztat atera dugu modu egokian bete dela indarrean dagoen araudia.

Burlatako Udaleko eta patronatueta langileek daukaten hitzarmena 2007koa da. 2013ko abenduan, beste hitzarmen bat sinatu zen, eta 2014ko uztailaren 17an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Hitzarmen horrek indarra hartu zuen argitaratu zen unean, eta atzera-eragina dauka, hain zuzen ere 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina. Hitzarmen horrek lan-kontratudunei, osasun-laguntzaren prestazioei dagokienez, Erabilera Bereziko Montepioari atxikitako funtzionarioek daukaten antzeko prestazioak eman zizkien. Nabarmendu nahi dugu ezen ekainaren 18ko 12/2014 Foru Legearen bidez, funtzionarioetako prestazioen araubidea aldatu egin dela.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa premia errealean arabera egokitzeko azterketa-prozesua osatzea.*
- *Aztertzea ekainaren 18ko 12/2014 Foru Legeak nolako eraginak izan ditzakeen langileen hitzarmeneko klausuletan.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 4,6 milioi euro egin dute 2013ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 29 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 33 egiten dute. 2012. urtearen aldean, ehuneko 5 egin dute gora. Hona gastu horien xehekako azalpena:

Kontzeptua	Kopurua
Errentamenduak	306.509
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	883.810
Materiala, hornidurak eta beste	3.397.757
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	1.747
Guztira	4.589.823

2012ko datuekin alderatuta izan den igoera horren arrazoia da, funtsean, konpontze-, mantentze- eta kontserbazio-lanetatik heldu den gastuak gora egin duela.

Kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
4 eta 12 urte bitarteko haur-errentzako hiri kanpamenduak	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publikiziterik egin gabea	89.880	8	84.056
Seinale horizontal eta bertikalen mantentzea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	55.300	7	51.523

Azterketa honetatik eta erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastu horiek behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu dela egiaztatu da.

Kultur Patronatuaren kultur jardueretarako laguntza teknikoko zerbitzu batzuek, 2013an, bere zenbatekoaren arabera kontratazio-prozedura egokia izapidetzea eskatuko lukeen gastu bolumena izan dute.

Hona gure gomendioak:

- *Urteko gastuaren bolumena alde aurretik balioets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hau duten gastuek 1,3 milioi euro egiten dute; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 8 eta gastu arrunten ehuneko 10.

Ondoren gastu horiek aurreko ekitaldiko gastuekin konparatuko dira:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2012	2013	2013/2012
Toki entitateei	269.513	268.688	-0,30
Mankomunitateei	337.698	343.804	1,80
Familiei	334.854	348.120	4,00
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	382.432	372.179	-2,60
4. Transferentzia arruntak	1.324.497	1.332.791	0,70

2012ko ekitaldiaren aldean, gastu horiek aurreko ekitaldian egindakoen antzekoak dira.

Kapitulu hau aztertzeke egin den lanean, egiaztatu dugu gastu hori justifikatuta dagoela eta zuzen kontabilizatu dela, arau indardunak egoki betez.

VI.5. INBERTSIOAK

2013. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (2,2 milioi euro) ehuneko 75 bete da, eta 1.651 mila eurora iritsi da; hau da, ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 10era.

2012rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 200 baino gehiago –hau da, 1,1 milioi euro– egin dute gora. Halere, permuta kontuan hartzen bada, ehuneko 33 egin dute behera.

Honakoak dira 2013an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Kopurua
Caritasen higiezina erostea	1.284.148
San Juan plazako eragineko estalkia berritzea	132.989
Kirol instalazioen berritzea, uholdeak direla eta	87.811
Erabilera publikoko ondasunen berrezarpena, uholdeak direla eta	52.935

2013an esleitutako honako espedienteak aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
San Juan plazako estalkiaren zaharberitzea	Obra	Negoziatua, Europan publikizaterik egin gabe	124.352	7	103.212
Santa Maria zentroaren eraispena	Obra	Negoziatua, Europan publikizaterik egin gabe	121.752	4	66.950

Santa Maria zentroaren eraispen-lanen esleipena 2013an hasi zen eta 2014an amaitu zen.

2012ko eta 2013ko ekitaldietan, Burlatako udalerriko E sektoreko hiri-finka –1. poligonoko 277-B lur-zatia katastro-erreferentzia duena– Iruñeko eta Tuterako Elizabarrutiko Caritasen jabetzakoa den higiezinarekin permutatu da –Kale Nagusiko 26. zenbakiko hiri-finka, 2. poligonoko 84. lur-zatia katastro-erreferentzia duena–.

Peritu-txostenaren ondoren, Udalak 1.284.148 euro ordaindu ditu, hain zuzen ere Caritasen jabetzakoa zen permutatutako ondasunaren tasazio-balioarekin bat datorrena, eta 964.000 euro kobratu ditu, hain zuzen ere Udalaren jabetzakoa zen permutatutako ondasunaren tasazio-balioa.

Bestalde, Udalak Caritasi laga dio Burlatako 274. katastro-lurzatian dagoen zerbitzu anitzetako eraikinaren erabilera-eskubidea, 30 urterako, 320.148 euroren truke.

Espedienteak behar den dokumentazioa dauka, eta Udalak finka hori erosteko daukan interes orokorra dela-eta dago justifikatuta.

Azaldu den permuta-operazioak ez du eraginik izan 2013ko ekitaldiko aurrekontu-emaiztan, zeren eta Caritasen jabetzapeko ondasuna erosten egin den gastua konpentsatu baita Udalaren jabetzakoa zen ondasuna Caritasi permutatuz eskuratu den diru-sarrerarekin eta aurreko lerrokadan aipatutako erabilera-eskubidearen lagapenarekin.

Hala eta guztiz ere, adierazi bezala, eragiketa hori kontabilitate orokorrean baino ez zen erregistratu beharko.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubideak 15,2 milioikoak izan dira; ehuneko 87,15 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 12,85, berriz, kapital-eragiketei. Tributu bidezko diru-sarrerak 7 milioi eurokoak dira, eta transferentzia arruntak, berriz, 6,2 milioi eurokoak.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 77,83koa izan da.

2012. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 5 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2013/2012
	2012	2013	
1. Zuzeneko zergak	3.729.428	3.938.636	5,60
2. Zeharkako zergak	1.192.371	389.416	-67,30
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.683.209	2.687.765	0,20
4. Transferentzia arruntak	6.601.976	6.243.496	-5,40
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	643.192	856.715	33,20
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.850.176	14.116.028	-4,90
6. Inbertsioen besterentzea ¹	151.580	964.000	536,00
7. Kapital-transferentziak	1.001.606	122.216	-87,80
8 Finantza-aktiboak	10.039	11.635	15,90
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	1.163.225	1.097.851	-5,60
Diru-sarrerak, guztira	16.013.401	15.213.879	-5,00

1 Permuta kontuan hartzen ez bada, besterentze bidezko diru-sarrerak deusezak dira, eta ondare bidezkoak, berriz, 320.148 euro txikiagoak dira.

Udalerrian 2013an obra gutxiago egin dira 2012an baino, eta horrexek eragin du zeharkako zergen urritzea. Transferentzia arruntek behera egin dute, zeren eta lantegi eskolarako ekarpenak ere behera egin baitu. 2012an amaitu zuen bere jarduera.

Inbertsioen besterentzetik heldu den kapituluak gora egin du, aurreko atalean azaldutako permuta dela eta.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2013/2012
	2012	2013	
Lurraren kontribuzioa	2.171.399	2.299.129	5,90
Ibilgailuak	856.815	849.368	-0,80
Lurren balio-gehikuntza	372.121	473.698	27,30
JEZa	329.093	316.441	-3,80
EIOZa	1.192.371	389.416	-67,30
Guztira	4.921.799	4.328.052	-12,00

Guztira, zuzeneko zergei eutsi egiten zaie, baina zeharkako zergek behera egin dute, arestian adierazitakoa dela eta.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,286	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2 eta 3,4 bitarte	2 eta 3,8 bitarte
Zerga-tasa	12	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean egindako azterketatik ondorioztatu dugu, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, nahiz eta, aurreko txostenetan adierazten genuen bezala, soilik egiazki kobratutako isunen aurrekontuari egozten zaizkion.

Hona gure gomendioak:

- *Diru-sarreraren aurrekontua, egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, egiaz dauden aukeren arabera egitea.*
- *Isunak kudeatzeko prozedura osatzea, kobratzeko dauden isunen zenbatekoa ezagutu ahal izateko.*

VI.7. HIRIGINTZA

Burlatako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, bi aparejadore, obren buru bat eta administrari ofizial bat eta zerbitzu anitzetako 20 langile.

Ez dago kanpoko ahokularirik alor honetarako.

Hirigintza kudeatzeko finkatutako prozedura batzuk badaude, eta egiaztatu egiten da arau indardurak egoki betetzen direla.

Burlatako Udalaren Antolamendu Plana 1991n onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko.

2005eko ekainean, Udaleko Osoko Bilkurak Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zuen, eta Nafarroako Gobernuari igorri zion. Oroitidazkian azaltzen denez, 2012ko martxoaren 30ean Lurralde Antolamendurako Batzordeak LEEE hori onetsi zuen. Data berean, udal plana berrikusi aurreko hitzarmen bat sinatu zen; hasierako onespena 2014ko maiatzaren 29ko Osoko Bilkuran eman zaio. Txosten hau egiteko datan, erakusketa publikoko aldiari dago.

Bestalde, egiaztatu dugu Udalaren barne-kudeaketarako eta -kontrolerako organoek ez dutela hirigintza-jardueraren gaineko ez jarraipenik ez ikuskaritzarik egiten, ekipamendu-obrei eta etxebizitzaren sustapenari eta eraikuntzari dagokienez.

Azkenik, ikusi dugu udal ondarea besterentzetik lortutako baliabideak indarra duen araudian ezarritako helburuetarako erabili direla.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Udalak diseinatzea eta aplikatzea Udalaren kapitaleko sozietateei, jarduera orotan, ezarri beharreko finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak.*

VI.8. BURLATAKO UDALAREN HIRIGINTZA SOZIETATEA, S.L.

2006ko otsailean, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L. sortu zen, 1,8 milioi euroko kapital sozialarekin eta 664.557 euroko jaulkipen-primarekin. Burlatako Udalak berak jarri zituen diruzenbateko horiek osorik, diru horretan baloratutako lursail baten lagapenaren bitartez.

Sozietate horren xedea da Udalaren ekintzak eraginkorrak izatea hiriaren birgaitzea bultzatzeko, etxebizitzak eta beste eraikin batzuk sustatzeko, lurzorua urbanizatzeko, egoera txarrean dauden hiri-eremuak zaharberritzeko, eta, orobat, orube eraikigarrien eta horietan eraikitzen diren eraikinen salmentako eta errentamenduko prezioak murriztea.

Burlatako Udalak bi lursail-bloke laga zizkion dohainik Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, Erripagañako Udalez Gaiendiko Plan Sektorialaren birzaitze-proiektuaren ondorioz, haiek hirigintzaren aldetik kudea zitzan eta etxebizitzaren sustapena egin zezan:

Etxebizitza-sustapenerako helburuak betetzeko, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi deialdi egin ditu lagapen horietako bakoitzerako, beste bazkide pribatu batekiko bitariko sozietateak eratzeko asmoz, etxebizitza babestuak sustatu eta eraikitzeke; horrek lurzatiak salmenta bidez besterentzea eskatzen zuen, gainera, inplizituki. Sozietate misto horiek dira “Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L.” –2008ko ekainean eratua– eta “Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L.” –2010eko martxoan eratua–.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi sozietateetan duen partaidetza ehuneko 51koa da; bazkide pribatuak –bi sozietateetan bera da, Nasipa, S.L.–, berriz, gainontzeko ehuneko 49 dauka. Honakoak dira deialdi horien ondoriozko sozietateak: Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L.

Gainera, Udalak munta handiko inbertsioak egitea enkargatu dio Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L.ri, nahiz eta azken horrek langile bakarra duen, eta, gainera, proiektu horien kontrola eta gainbegiratzea ere haren esku uzten du, bai eta haien etorkizuneko balizko ustiatze ekonomikoa ere. Hala eta guztiz ere, 2013an ez da beste enkargurik egin.

Eragiketa multzo honen inguruan, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen egoerari buruzko balantzeak 8,6 milioi euroko saldoa erregistratu zuen 2013ko abenduaren 31n "Higiezinetakako inbertsioen" atalean –Udalarentzat egindako eta jada bukatutako ekipamenduengatik– eta "Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" atalean Udaletxeak doan emandako lursailen balioa jasoz joan da –8,05 milioi euro–. Horrek geroago besterendu egin zituen bitariko sozietateak.

Hala eta guztiz ere, 2012ko apirilean azalera-eskubidea emateko kontratuak formalizatzea onetsi zen, Udalak sozietateari lagatako lursailengatik, bai eta sozietateak Udalari lagatako eraikinen errentamendu-kontratuak ere. 2012an egindako kontratu hauekin, konponbide bat ematen zaio zehaztasunik gabeko egoera juridiko bati, bai enkarguei berei dagokionez bai Udalaren lurzoruan eraikitako ekipamendu horien ustiapenari dagokionez ere.

Ekipamendu hauek honakoetarako dira:

- Haur eskola.
- Gazteentzako zentroa.
- Aldageletako eraikina.
- Obretarako biltegi-zentroa.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L.ren urteko kontuak, 2013. urteari dagozkionak, kanpoko profesional batek ikuskatu zituen, eta bere iritzia eman zuen, salbuespen bakar honekin:

Haren ondare garbia 15,8 milioikoa zen 2013an, eta ez du epe luzeko zorrik. Maniobra-funtsa positiboa du, 4,6 milioi eurokoa.

2013an 462.719 euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 42.106 euro langile-gastuei dagozkie eta 309.563 euro amortizazio-gastuei, funtsean. 2013ko diru-sarrerak 750.819 eurokoak izan dira; funtsean, Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L.k emandako dibidendutik heldu diren diru-sarrera finantzarioei dagozkie (433.000 euro), eta neurri txikiagoan, negozio-zifraren zenbateko garbiari (179.000 euro).

2013ko emaitzak 288.000 euroko irabazia izan du. Horietatik, 120.000 euro borondatezko erreserbetara bideratuko dira, eta gainerakoa Udalarentzako dibidenduetarako izanen da.

VI.9. RIPABERRI DESARROLLO URBANO, S.L.

2008ko ekainaren 17an eratu zen Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. sozietatea. Haren kapital soziala 3.100 eurokoa zen, eta kapital sozial horretatik ehuneko 51 Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L.rena zen eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batena; bazkide horrek sustapenaren zenbatekoaren ehuneko 4 jasoko zuen kudeaketa-gastuen kontzeptuan (0,8 milioi euro izan ziren guztira).

Sozietate-xedea, besteak beste, edozein izaeratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagaña udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan.

Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L.k babes ofizialeko 48 etxebizitza eta prezio tasatuko 158 etxebizitza eraiki ditu. Guztiak, 13 izan ezik, 2011n egin ziren, eta 2,12 milioi euroko emaitza azaleratu dute. Nafarroako kontratazio atariak, 2008ko azaroan, haien lizitazio-iragarkia argitaratu zuen, 20 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); Ripaberriren bazkide pribatua (Nasipa, S.L.) kontratuaren esleipen-hartzaile suertatu zen 2009an, 19,98 milioi euroko zenbatekoarekin (BEZa kenduta). Aurkeztutako eskaintza bakarra izan zen.

2013an, Nasipak ez du obra-ziurtagiririk fakturatu. Txosten hau egiteko garaian hartzekodunen borondatezko konkurtsoan dago.

Ehuneko lau kudeaketa-gastua, 0,8 milioi euro inguruko diru-sarrera izanen da guztira bazkide pribatuentzat (behin eraikuntza bukatutakoan).

Ripaberri sozietatearen 2013ko urteko kontuak, kanpoko auditoreek egindako ikuskaritza finantziarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzia aldekoa izan zen.

104.839 euroko ondare garbia du. Epe luzerako 1,2 milioi euroko zorra du, eta 1,3 milioi euroko maniobra-funtsa dauka.

2013ko gastuek 119.000 euro egin dute guztira; horietatik, 83.000 euro ustiaketaren bestelako gastuei dagozkie. Sozietate honek ez du langilerik.

Haren diru-sarrerak 14.000 eurokoak dira. Horietatik, 13.996 euro etxabe baten salmentatik etorri dira.

Ekitaldiko emaitzek 0,1 milioi euroko galera ekarri dute. Kopuru hori aurreko ekitaldietako emaitza negatiboetara aplikatzen zaie.

Txosten hau egiteko garaian, sustapen honen behin betiko emaitzak onuren 5,8 milioi ingurukoak dira: horrek esan nahi du sustapen gastuen gaineko ehuneko 16,93ko etekinak izan direla.

Oroitidazkian aipatzen denez, aurreikusita dago 2013an sozietatea desagitea. Hala ere, txosten hau egiteko garaian oraindik desegin gabe dago.

VI.10. ERRIPAGAÑA DESARROLLO URBANO, S.L.

2010eko ekainaren 18an, Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. sozietatea eratu zen. Haren kapital soziala 3.100 eurokoa zen, eta kapital sozial horretatik ehuneko 51 Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L.rena zen eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batena (Nasipa, S.L.); bazkide pribatu honek ehuneko 0,25 jasoko zuen kudeaketa-gastuen kontzeptu gisa.

Sozietatearen xedea, besteak beste, edozein izaeratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagaña udalez gairik plan sektorialaren esparruan.

Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. hasia zen babes ofizialeko 267 etxebizitza eraikitzen. Horretarako, Nafarroako kontratazio atariak, 2010eko uztailaren 8an, haiek eraikitzearen obren lizitazio-iragarria argitaratu zuen, 23,86 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); prozesu horretara hiru eskaintza aurkeztu ziren, eta sozietatearen bazkide pribatua gertatu zen esleipen-hartzaile. Esleipenaren zenbatekoa 19,08 milioi eurokoa da, ehuneko 37ko bajarekin.

Espedientean kanpoko bi abokatuk egindako txosten juridiko bat agertzen zen, non adierazten baitzen bazkide pribatuak bere eskaintza aurkez zezakeela kontratazio-prozesura horretarako, ez baitzen ikusten "baztertzeko inolako kausa automatikorik gertatzen denik".

Baina, txosten horrexek gehitzen zuen, kontratazio publikoaren printzipioak bermatzeko, sozietateko Administrazio Kontseiluak hautaketa-prozesuan eta aipatutako obra burutzekoan eragina zuen edozein erabakietan parte hartzeari uko egin behar ziola bazkide pribatuak.

2013an, Nasipa, S.L.k ez du obra-ziurtagiririk fakturatu.

Erripagaña sozietatearen 2013ko urteko kontuak, kanpoko auditoreek egindako ikuskaritza finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzian honako salbuespena jaso da: "Sozietateak 2013ko ekitaldiaren itxieran bere produktu amaituak baloratu ditu, eta 512.088,20 euroko andeatzea aplikatu du; horrek izakinen amaierako zenbatekoaren ehuneko 15eko andeatzea egiten du. Sozietateak ez du baliabiderik izakinen andeatzea objektiboki baloratzeko; hori dela eta, ezin izan dut egiaztatu erantsitako egoera-balantzean haiei esleitutako balorazioaren arrazoizkotasuna, ez eta erantsitako galeren eta irabazien kontuan erregistratutako produktu amaituen izakinen gutxitzean izan duen eragina ere.

91.000 euroko ondare garbia du. Epe luzerako 2,8 milioi euroko zorra du, eta 2,9 milioi euroko maniobra-funts positiboa dauka.

2013an 2,2 milioi euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 1,5 milioi euro 2013an saldutako etxebizitzaren izakinetan gertatutako bajari dagozkie. Sozietate honek ez du langilerik.

2013ko diru-sarrerak 2,2 milioi eurokoak izan dira. Horietatik, 1,7 milioi euro etxebizitzaren salmentari dagozkie, eta 87.000 euroko emaitza lortu da.

Txosten hau egiteko garaian, sustapen honen behin-behineko emaitzak 12,6 milioi inguruko mozkinak dira: horrek esan nahi du sustapen gastuen gaineko ehuneko 37,59ko mozkinak izan direla.

Oroitidazkian aipatzen denez, aurreikusita dago 2013-2014an sozietate hori desagitea.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas